

BERRI PAPERA

13. ZK.



EUSKARA

MARIENEA BASAURI
2022 · 2023 IKASURTEA



MARIENEA
Basauri Enbaitzen errea
osa de las Mujeres de Basauri

HARREMANETARAKO ETA MATRIKULAK EGITEKO

**MARIENEA
BASAURIKO EMAKUMEEN ETXEA**

TELEFONO-ZENBAKIA: 946 124 100

HELBIDE ELEKTRONIKOA:
MARIENEA@BASAURI.EUS

ORDUTEGIA: 9:30-14:30 ETA 16:00-20:30,
ASTELEHENETIK OSTIRALERA
(OSTIRALETAN, GOIZEZ BAINO EZ)

HELBIDEA: KAREAGA GOIKOA 54,
48970 BASAURI (BIZKAIA)

FACEBOOK ETA INSTAGRAM:
@MARIENEABASAURI

WEBGUNEA: BERDINTASUNA.BASAURI.EUS

DATA ZEHATZETARA BIDERATUTAKO EGITARAUA



A25 | Indarkeria Matxistaren
aurkako eguna



M8 | Emakumeen Eguna



A26 | M17 | E28
LGTB eskubideak aldarrikatzeko
egunak

Argitaratzen du:
Marienea Basauriko Emakumeen Etxea

Ilustrazioak, diseinua eta maketazioa:
Habemus Estudio

Inprimaketa:
Printheus

EMAKUMEENTZAKO JABEKUNTZA ESKOLA

- › Jardueretan parte hartzeko, zera egin behar duzue: izena aurretiaz eman, tokia badagoela egiaztatu eta ordainketa egin.
- › Izena eman ahal izango duzue Marienean bertan: telefonoz deitu, bidali mezu elektronikoa edo izena eman webgunean.
- › Lehenetasuna izango dute Basaurin erroldatutakoek.
- › Tokia badagoela egiaztatu eta gero ordaindu beharko duzue matrikula.
- › % 50eko tarifa murriztua langabezia eta LANBIDEn apuntatuta daudenentzat, DSBEa jasotzen dutenentzat eta 18-24 urteko ikasleentzat.
- › Doan 18 urtetik beherakoentzat.
- › Haurtzaindegi-zerbitzua aukeran, Basaurin erroldatutakoentzat (aurretiaz eskatuta).
- › Ikastaro elebidunak: edukiak euskaraz eta gaztelaniaz azalduko dira, eta parte-hartzaileek nahi duten hizkuntzan mintzatzeko aukera izango dute.





AUTODEFENTSA

FEMINISTA

4

• **Prestatzailea:** Pilar Álvarez Molés

• **Datak:** irailak 28 eta 29,
asteazkena
eta osteguna

• **Ordutegia:** 17:30 - 20:30

• **Matrikula:** doan **GAZTELANIAZ**

Emakumeok jasaten ditugun erasoei
—fisikoak zein bestelakoak— aurre egiteko
gaitasuna garatuko dugu.

LITERATURA IKASTAROA

EUSKAL IDAZLEAK

GAZTELANIARA ITZULITA

- **Prestatzailea:** Ainhoa Aldazabal

- **Datak:** asteazkenak, urriak 5, azaroak 2, abenduak 14, urtarrilak 11, otsailak 1, martxoak 1 eta 15 eta maiatzak 3

- **Ordutegia:** 18:00 - 20:00

- **Matrikula:** 10 € **GAZTELANIAZ**

Urteetan zehar, euskal idazle adierazgarrienen lanak itzuli dira gaztelaniara. Tailer honetan zubiak ezarriko ditugu Bilboko hirian elkarrekin bizi diren bi literaturen artean, elkar hobeto ezagututa, elkarriketarako eta trukerako aukera berriak sor daitezzen.

PELBIS ZORUA SENDOTZEKO

TAILERRA, ETA ASKOZ GEHIAGO...

- **Prestatzaileak:** Vanesa Porret
Isabel Relancio
Saioa Hernandez
Itziar Arroyo



- **Datak:** urriaren 20tik otsailaren 16ra, ostegunetan

- **Ordutegia:** 17:00 - 19:00

- **Matrikula:** 20 € **GAZTELANIAZ**

Ikastaro honetan, gure gorputzaren kontzientzia hartuko dugu Fendelkrais metodoaren bidez; sendotze-, adierazpen- eta autozaintza-teknika berriak landuko ditugu, eta, dantzaren bidez, gorputza astinduko dugu.

*Ez da jarduera terapeutikoa edo lesioak sendatzekoa.

IRAKURKETA DRAMATIZATUA

• **Prestatzailea:** Haizea Murguia
(Malabaricia)

• **Data:** urriaren 24tik
abenduaren 19ra,
astelehenetan

• **Ordutegia:** 18:00 - 20:00

• **Matrikula:** 10 € **GAZTELANIAZ**

Eszenaratzeko tailer bat, gorputz eta ahots lanarekin, ikuspegi feministatik ahoz komunikatzen ahaldundu nahi duten emakumeei zuzendua.





ZER DAKI ZURE GORPUTZAK ZUK (ORAINDIK) EZ DAKIZULA?

- **Prestatzailea:** Patricia Verdés Giménez

- **Datak:** asteazkenak, urriak 26,
azaroak 23, abenduak 21,
urtarrilak 25, martxoak 22,
apirilak 26 eta maiatzak 24.

- **Ordutegia:** 9:45 - 12:45

- **Matrikula:** 10 € **GAZTELANIAZ**

Gure gorputzak jakinduria ederra du, baina badakizu entzuten? gure gorputz femeninoetan prozesu desberdinak bizi ditugu edo bizi ditzakegu, hala nola hilekoaren zikloa, menopausia, haurdunaldia, baina badakizu prozesu horiek ezagutzen eta zaintzen? Patriarkatuak mezu kaltegarriak bidaltzen ditu gure gorputzarentzat eta gure osasunarentzat, ba al dakizu bereizten eta sinesgarritasuna kentzen?



ANITZAK GARA

SERIGRAFIA TAILERRA

8

Neska gazteentzat (10-15 urte)

- **Prestatzailea:** Torontile
- **Data:** azaroaren 4tik 18ra, ostiraletan
- **Ordutegia:** 17:00 - 20:00
- **Matrikula:** doan **EUSKARAZ**

Aniztasuna modu zabalean ulertzen dugu; pertsona ororen berezitasunak, errespetatu eta maitatu egiten ditugu. Zuen sormenerako gaitasun eta grina erabiliko dugu serigrafia ikastaro honetan.

GIZONEN DESBOTERATZEA



• **Prestatzailea:** Hiruki Larroxa

• **Datak:** azaroaren
5etik 19ra,
larunbatetan

• **Ordutegia:** 10:00 - 14:00

• **Matrikula:** doan **ELEBIDUNA**

*Gizon antolatuei zuzenduta.

Maskulinitate hegemonikoak izan duen eta gaur egun duen eraginari buruz hitz egingo dugu eta, horrela, erantzukizun kolektiboak definitu eta gure ingurunean duen eraginaz arduratu ahal izango gara.



• **Prestatzailea:** Rurru Mipanochia

• **Data:** azaroaren 8tik 29ra,
asteartetan

• **Ordutegia:** 18:00 - 20:00

• **Matrikula:** 5 € **GAZTELANIAZ**

Ikastaro teoriko-praktiko honetan fanzinearen inguruan lan egingo dugu, hedapen errazeko tresna eta adierazpen-tresna gisa hartuko dugu. Gure ideiak garatuko ditugu, eta murgildu egingo gara bere historian, konposizioan, maketazioan, digitalizazioan eta irteera-formatu batzuetan.





FEMINISTEN ARTEKO

EZTABAIDAK

**Nondik gatoz eta nora goaz?
Feminismotik egindako hausnarketak**

EUSKARAZ

Tere Maldonado / Urriak 27, Osteguna



Indarkeria matxista aztertzeko eta erantzun kolektiboak eraikitzeko gakoak

GAZTELANIAZ

Laura Macaya / Abenduak 1, osteguna



Trans eta LGTB lege proiektuaren inguruko hausnarketa

EUSKARAZ

Aitzole Araneta / Otsailak 2, osteguna



Zer da intersindikalar feminista bat?

CASTELLANO

Rafaela Pimentel, La Laboratoria
Martxoak 23, osteguna



• **Ordutegia:** 18:00 – 20:30

• **Matrikula:** doan



TRESNEKIN TXORA-TXORA EGINDA!

12

• **Prestatzailea:** Paz Carbajosa

• **Datak:** urtarrilaren 9tik
martxoaren 27ra,
astelehenetan

• **Ordutegia:** 18:00 - 20:00

• **Matrikula:** 20 € **GAZTELANIAZ**

Bada garaia emakumeok erremintak erabiltzeko dugun balizko trakestasunaren eta ezgaitasunaren mitoa hausteko. Lanabesak erabiltzen, horien beldur ez izaten, eta horiekin disfrutatzen ikasiko dugu. Tailerraren xedeak: erremintak erabiltzeak dakarren autonomiaz ohartzea, eta gogobetetzea eta autoestimua areagotzea —guk egindako gauzek bestelako balioa izaten baitute—.



LABORATEGI ZITALA

• **Prestatzailea:** Susana Saguer

• **Datak:** urtarrilaren 24tik
martxoaren 14ra,
asteartetan

• **Ordutegia:** 18:00 - 20:00

• **Matrikula:** 10 € **GAZTELANIAZ**

Era guztietako zitaleri gonbidapen irekia. Bazterretan bizi garen guztiontzako topagune eta sorkuntza eszenikorako gunebat, protagonismo hori hartuko dugu distira ateratzeko.

• **Prestatzaileak:** Zahira Montalvo
Noelia Blanca

• **Datak:** ostegunetan,
urtarrilak 26,
otsailak 2 eta 9,
martxoak 9


• **Ordutegia:** 17:30 – 20:30
(martxoak 9,
18:30 – 19:30)

• **Matrikula:** 10 € **GAZTELANIAZ**

Adierazpen artistikoaren eta bideoartearen bidezko ahalduntze-tailerra. Sormen-laborategia eta talde-dinamika tailerra, non, ikus-entzunezko tekniken bidez, lortuko dugun begirada kolektiboa bideratzea zeharkatzen gaituzten gaietara. Gure bizipen indibidualetatik adierazpen kolektibo baterantz abiatuta, argitara atera nahi ditugun gaiei ahotsa emateko, ikusarazteko eta salatzeko.



ESKALADA TAILERRA

- **Prestatzailea:** Tontxu Larrinaga
- **Datak:** martxoak 25 eta 26, larunbata eta igandea
- **Ordutegia:** 10:00 - 14:00
- **Matrikula:** 5 € *EUSKARAZ*
- **Lekua:** Artunduagako Polikiroldegian 

Gero eta emakume gehiagok egiten dute eskalada, baina rokodromoarekin lehen kontaktua kosta egiten da. Elkarrekin probatuko dugu? Eskalada egiteko kontuan hartu beharreko aldeak landuko dira: erabiltzen diren materialak, oinarritzko maniobrak, jarduera berak dituen arriskuak eta arriskuak gutxitzeko segurtasun neurriak.





• **Prestatzailea:** Miriam Herbón

• **Datak:** otsailak 11 eta 18,
larunbatak

• **Ordutegia:** 10:30 - 14:30
y 15:30 - 19:30

• **Matrikula:** 10 € **GAZTELANIAZ**

Amatasunari feminismoek heldu behar diote, ez baitago beste aukerarik erromantizismoz apaindutako ama perfektu patriarkalaren molde zapaltzailetik askatzeko. Emakume bakoitzaren garapen indibiduala eta eraldaketa erraztuko duten amatasunak nahi ditugu, askatasunetik abiatuta, eta ez sakrifiziotik eta uko egitetik abiatuta.

HILEKOAREKIN BIZITZEA

9-14 urte (hilekoa daukatena)

-
- **Prestatzailea:** Saioa Hernandez

 - **Data:** otsailaren 15 eta 22, asteazkenak

 - **Ordutegia:** 17:30 - 19:00

 - **Matrikula:** doan **EUSKARAZ**

Gure gorputza etengabe aldatzen da; eta, pubertaroa bezalako garai batzuetan, aldaketak oso esanguratsuak dira. Ziklo menstrualari buruz hitz egingo dugu, eta etapa berri hori aztertzeko egiazkoa eta naturala den informazioa emango dugu.

IRRINTZI IKASTAROA



-
- **Prestatzailea:** Amaia Gartzia

 - **Data:** martxoak 2, osteguna

 - **Ordutegia:** 18:00 - 20:30

 - **Matrikula:** doan **EUSKARAZ**

Irrintzia oihu zorrotza eta sakona da, bat-batekoa eta hats bakarrekoa, eta, normalean, alaitasunaren seinale gisa botatzen da festetan, baina baita errebindikazio-ekintza bat laguntzeko ere. Horregatik, martxoaren 8a gertu dagoela, bota dezagun irrintzi bat!

GORPUTZ HEDATUA

ESKU-HARTZE ARTISTIKO KOLEKTIBOA



• **Prestatzailea:** Silvia Ayerra

• **Datak:** ostegunetan,
apirilaren 27tik
maiatzaren 25era,
ostegunetan

• **Ordutegia:** 18:00 - 20:00

• **Matrikula:** 10 € **GAZTELANIAZ**

Tailer hau esperimentazio artistikoko laborategi bat da, non taldean genero-identitatearen, desioaren eta sexualitateen eraikuntza birpentsatzen den, espazio publikoan obra kolektibo bat sortzeko.





SORGINEN PRESTAKETAK

• **Prestatzailea:** Mentxu Amunategi

• **Data:** maiatzak 6,
larunbata

• **Ordutegia:** 10:00 - 14:00

• **Matrikula:** 5 € *ELEBIDUNA*

* Sendabelarrak tailerra egin duten ikasleentzat.

Aurreko ikasturtean ikasitakoa praktikan jarriko dugu, eta gure prestaketak sortuko ditugu. Ura, olioak eta alkohola erabilita ukenduak egingo ditugu gure inguruko landareekin.

JABEKUNTZA ESKOLAKO TALDEAK

Batzuetan, tailerretan, ikastaroetan eta bestelako topaketetan parte hartu duten zenbait emakumek erabakitzen dute biltzen jarraitzea. Marieneak talde horiek babesten ditu, eta erabiltzaileen eskura jartzen ditu dauden baliabideak. Ezagutu taldeak!

01 ELKARREKIN OINEZ

Denok batera ibiliko gara oinez: elkar ezagutzeko, sareak egiteko, elkarri laguntzeko eta sasoi onean egoteko. Asteazkenero, 10:00etan. Marieneatik irtengo gara.



02 TREBETASUNAK TRUKATZEKO TALDEA

20

Asteazkenero elkartzen gara, arratsaldeko 17:30etik 19:30era bitartean, guretzat garrantzitsuak diren gaiak lantzeko eta ekimenak antolatzeko. Aurrera egin nahi dugu, emakumeok osatutako sare bat sortzeko eta elkarri laguntzeko, elkar zaintzeko, talde baten parte izateko eta trebetasunak trukatzeko. Taldea irekita dago. Animatu, eta ezagutu gaitzazu!

03 MARIENEAKO KORRIKALARIAK

Korrika egitea taldean. Zertarako? Kirola egiteko, kaleak okupatzeko eta (gureak ere badirela aldarrikatzeko), ikus gaitzaten, elkarri laguntzeko eta hobetzeko. Astean behin, gutxienez, ateratzen gara. Galdetu Marienean. Parte-hartzaile berriei irekita! Ez dago korrikalaria izan beharrik.

04 TOPAKETA SORTZAILEAK

Margotu, collage egin, edo argazkiak brodatu nahi dituzu? Bi asteazkenetik behin biltzen gara 18:00etatik 20:00etara. Atera daukazun zure barruko artista goatzera!

05 IBILKETA NORDIKOA

Ibilketa nordikoak egunero deskubritzen ditugun onurak dakartza. Dibertigarria izateaz gain, partekatzen dugun ariketa da, gure artean hitz egiten dugu, etab. Makilak dituzten ibiltari guztientzat irekia, adin-edo baldintza-mugarik gabe. Ostegunetan gelditzen gara, 10:00etan, Marienean, eta ordubete edo gehiago ematen dugu oinez. Animatu!

06 EMAKUME NAGUSIAK

Etor zaitetz Basauriko emakume nagusien egoeraz ikuspegi feministatik gurekin hausnartzera. Astearte goizetan Marienean biltzen gara.

07 BASFEMBAND

Danborrak elkarrekin jotzen ditugu, eta erritmoa jartzen diegu feministen aldarrikapenei espazio publikoan. Astero elkartzen gara, eta sarean lan egiten dugu beste banda batzuekin.

08 ESTEREOTIPAK OSASUN MENTAL FEMINISTA

Emakume feministak gara, eta hamabost egunetik behin biltzen gara osasun mentalari buruz hausnartzeko, estereotipoak hausteko eta gizarte-aldaketaren alde modu kolektiboan ahalduzko. Parte hartzeko eta informazio gehiagorako jar zaitetz gurekin harremanetan.




HERRITAR GUZTIENTZAKO JARDUERAK

MENOPAUSIA IKUSPEGI BERRI BATETIK AZTERTZEN

22

- **Prestatzailea:** Virginia Belategi
- **Data:** azaroak 9, asteazkena
- **Ordutegia:** 18:00 **GAZTELANIAZ**

Menopausia ez da amaiera, eta are gutxiago gaixotasuna. Hausnartzeko eta eraldatzeko aukera bat da, bizi-ziklo berri bati ekiteko. Krisalidatik tximeletara, berriz ere.





JARDUNALDIAK

INDARKERIA MATXISTAREN

BIKTIMEN ERREPARAZIOA

KOLEKTIBO FEMINISTEN

ESPERIENTZIAK

• **Antolatzailea:** Marienea
Elkartea



• **Data:** azaroak 18, ostirala

• **Ordutegia:** 17:00 - 20:30 **ELEBIDUNA**

Askotan, mugimendu feministak lagundu egiten die indarkeriari aurre egiten dieten emakumeei, eta salaketak kudeatzen laguntzen die, mahai gainean jartzen ditu jardunbide txarrak, akordioak ez betetzea, baliabide eskasak eta abar, eta hori, zalantzarik gabe, emakumeen sendatze-prozesuen parte da, baina, era berean, agerian uzten du erreparazio integratua bermatuko duten baliabideak eta tresnak sortzeko beharra. Horretan, mugimenduak funtsezko zeregina betetzen du berdintasun-politika publikoen jarraipenean.

JOLASA, BARREA ETA PLAZERRA

• **Data:** urtarrilak 26,
otsailak 23
eta martxoak 30

• **Ordutegia:** 19:00

Sexu-aniztasunak zoriontasunaren eta sexu-askatasunaren adierazpen gorena izan beharko luke, baina agian, testuinguruaren etsaigoak, denboraren pisuak eta kulturak eraginda jolastea ahaztu zaigu. Agian erotika bera ere serioegi hartzen ari gara. Desira eta plazera jolasetik eta kontaktutik elikatzen dira, eta horretarako, jokorik zentzugabeenetan parte hartzea gonbidatzen zaituztegu.

Zeure burua askatzeko eta gorputza mugimenduan jartzeko garaia izango da.





EMAKUMEEN

AHOTSAK



• **Antolatzailea:** Social Antzokia



• **Musika Gertu:** María Rivero.
03/03

• **Teatro del Barrio:** *Cómo hemos llegado hasta aquí.*
Antzerkia. 03/11

• **Benetan be:** *Batetik bestera.*
Haur antzerkia. 03/12

• **Teatro en vilo:** *Hoy puede ser mi gran noche.*
Antzerki musikala. 03/18

• **A panadaria:** *Las que limpian.*
Antzerkia. 03/25



TOXIKORIK EZ, ESKERRIK ASKO

♀ 26

- **Hizlaria:** Ianire Estébanez
- **Data:** martxoak 16
- **Ordutegia:** 18:30 **GAZTELANIAZ**

Oso erraz normalizatzen ditugu eguneroko gauzak bihurtzen direnak. Harreman toxikoen kontuari ekingo diogu oraingoan.

BOLLODRAMATIK

BOLLOFESTARA



- **Data:** maiatzak 5

- **Ordutegia:** 19:00

- **Monologoa:** *La bollera perfecta*
Pitu Aparicioekin

- Pintxada **DJGoFree!**-rekin

Lesbianismoa oraindik ere ez dago oso agerian, eta ondoezak eragiten dituzten estereotipoz beteta dago. Horregatik, topaketa bat proposatzen dugu, segurtasun-eta ongizate-testuinguru batean aitortpena eta ikusgarritasuna errazteko.





KURTSO AMAIERAKO JAIA

28

- **Data:** ekainak 10
- **Ordutegia:** 19:00
- **Lekua:** Bidebietako jaietan

Ikasturte amaiera honetan kaleak hartuko ditugu berriro ere, eta non Bidebietako jaietan baino hobeto? Bertan, grafiti ikusgarri batek Basauriko Emakumeen Taldea omentzen du.

Gainera **Bingo Feminista** berezi batean barrez lehertuko gara eta **kontzertu sorpresa** batean dantzatuko dugu.

Ezin duzue galdu!

ERAKUSKETAK ETA HORIEI LOTUTAKO JARDUERAK



Bisita librea, 09:30-14:30 eta 16:00-20:30, astelehenetik ostiralera (ostiraletan, goizez baino ez).

Marienea zabaldu zenetik, artista askoren lanak egon dira ikusgai Emakumeen Etxean: ilustratzaileak, margolariak, argazkilaria...

Artista bazara eta emakumeari zein feminismoari buruzko artelanak badituzu, Marienea da zure erakusketa antolatzeko lekua.

Jarri gurekin harremanetan, eta erakutsi zure lanak!



EMAKUME SAHARAR JABETUAK

- **Egilea:** Ana Valiño
- **Antolatzailea:** MKE
- **Datak:** irailaren 12tik
urriaren 28ra

Emakume sahararrek erresilientzia irudikatzen dute, beren melfen gainean lurraren okupazioaren eta itzultzeko irrikaren ondorioz urraduraz beteriko istorioa ehuntzen duten bitartean.



ENERITZ DUNABEITIA

GOJENOLA

COLLAGE DIGITAL

- **Datak:** azaroaren 2tik
abenduaren 2ra

Errebindikazio-edukia duten esaldiek, irudi lotsagabeek eta kolorez betetako konposizioek egiten dute arrakastatsu artista hau sare sozialetan.



ERRESISTENTZIA

30

FEMINISTAK: ESTRATEGIA

KOLEKTIBOEN KONTAKIZUNAK

- **Egilea:** Feministalde

- **Datak:** urtarrilaren 9tik
otsailaren 10era

Hango eta hemengo ikuspegi kritikoak, feministak, komunitarioak eta antolakuntzakoak trukatzearen ondorioz sortutako irudiak.





ROCÍO SALAZAR ILUSTRATZAILEA

- **Datak:** otsailaren 13tik
martxoaren 31ra

Agian bere ileak direla eta ezagutuko duzu. Rocío umore kritikoz beteriko ilustrazio berrieekin itzuli da. Zer ekarriko digu oraingoan?

TAZOLTÉOTL, PLAZERAREN ETA PASIOAREN JAINKOSA SEXU TOPAKETAK TLALTICPAC/ LURREAN

- **Egilea:** Rurru Mipanochia
- **Datak** apirilaren 17tik
ekainaren 30era

Erakusketa honek Mexiko prekolonialaren sexualitateetan sakontzen du, eta pieza bakoitzean ikuspegi queer, transfeminista eta dekolonialetik prentsatzan diren mito, erritu eta kondairak jorratzen ditu.

